



## AZKEN KLIK-A

Azkenean, iritsi da egun handia.  
Gipuzkoako Ikastolen urteroko festa  
nagusiak herrian du hitzordua. 16



# Miele etxetresna elektriko ekologikoak Bere ezaugarria kalitatea da

Kontsumo baxuko baloreak izateagatik ezaugarritzen dira Miele garbigailuak. W1945 Ecoconfort garbigailu berria Eco feedback programarekin hornituta dago. Eta horri esker, garbiketaren hasieran kontsumoaren aurreikuspen bat egiten du eta amaieran, izandako kontsumo zehatza azaltzen du, litro eta KWHtan. Honela, erabiltzaileak ur eta elektrizitate kontsumoa ezaugu eta kontrolatu dezake.

Mielek kalitatea berezkoa duelako. Eta naturala, ekologikoa izatea delako.  
Aukeratu Miele. Aukeratu Kalitatea

## MILAR LARRAMENDI kilometroekin bat

Miele banatzaile ofiziala:



Milar Larramendi  
Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia  
Tel. 943 85 18 97



**30 € -tik gorako  
erosketa  
egiteagatik,  
Milar kamiseta  
teknikoa opari**





## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behe,  
(Azpeitia, 20730)  
**Telefona eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
uztarria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 132.a (2011ko urria)  
**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730 792 /  
oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerio  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** EREGI  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren  
laguntzaileak** (erakunde  
publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzako  
Gobernua



**Uztarririk  
Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarrria  
Komunikazio  
Taldea ez du  
bere gain hartzen  
herri aldizkariaren  
adierazitako  
esanen eta  
iritzien  
erantzukizunik



## 2011KO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



## iritzia

**Inkesta.** Eskolaz  
kanpoko jardueraren  
batera joango zara? **13**

## mamia

**Ume lapurtuak.**  
Senitartekoen bila ari  
diren hiru herritarren  
testigantzak **04**  
**Julen Belategi.**  
Igogailu-  
konpontzailearekin  
motxean **32**

## jakiteko

**Bestaldetik.** David  
Zurutza futbol  
jokalariarekin zelaitik  
kanpoko gauzez **34**  
**Hementxe bertan.**  
Loredana Cretu,  
errumaniarra  
Azpeitian **37**


**Ba aL dakizu** Azpeitiko zinek Lubak orain  
de la 35 urte eman zuela aurreneko  
filma, 'ya no basta con rezar'? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere  
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldea orain arte  
**12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak  
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide  
**gara** dagoeneko Uztarrrian;  
eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean.  
106.400 euroko aurrekontua  
du Uztarrriak 2009. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia eta Enkarna Arregi (Liburu gehiago aterako ditu)

# Ume lapurtuak

Erditzean umea hil egin zela esan zieten, baina ustez bizirik dauden seme-alaben bila ari dira. Uztarriak hiru herritarren testigantzak bildu ditu. 📝📞 Ainitze Agirrezabala

**A**razoaren dimentsioa ezin da kalkulatu. Egunero agertzen da kasu berri mordoa, gero eta gehiago. Senitartekoen bila ari diren ehunka lagunen testigantzek frankismoan hasi eta ondorengo urteetan iraun zuen negozioa azaleratu dute. Erreportaje honetan, Uztarriak senitartekoen bila ari diren hiru herritarren testigantzak jaso ditu.

## GERONIMA RODRIGUEZ

1974ko azaroaren 10ean jaio eta hiltzat eman zuten alabaren ama

“Egia jakin dezan nahi dugu”

Alaba non dagoen jakiteko eta kasua argitu nahian zeru-lurrak ari dira astintzen Geronima Rodriguez eta haren familia. Bere hirugarren haurdunaldia zuen Geronimak, eta aurrekoak bezala Donostiko Arantzazu ospitalera joan zen erditzera. “Erditze normala izan nuen, konplikaziorik gabea, eta umea ere osasuntsu jaio zen; pentsa, jaioberri bati egiten dioten lehen balorazioan, Apgar-en testean, 1etik 10era, puntuaziorik altuena eman zuten. Erditze gelatik logelara igo ninduten, eta umea garbitzera eta prestatzera eraman zuten. Alaba noiz ekarriko zain nengoela, erizain batek esan zidan umea bat-batean gaizki jarri zela eta inkubagailuan eduki behar zutela. Umearen berririk jasotzen ez, eta hurrengo egunean inkubagailuen gelara jaitsi

ustez  
seme-  
alabaren bat  
Lapurtu dieten 629  
familia daude  
Araba, Bizkai eta  
Gipuzkoan

nintzen. Inork ez zidan esan nire alaba zein zen. Beste egun bat pasatu zen, eta umearen eboluzioaren inguruan ezer jakin gabe jarraitzen nuen. Azaroaren 10ean erditu nuen, eta 12an nire gizona Azpeitiko epaitegira etorri zen alaba erregistratzera. Ospitalean bakarrik geratu nintzen unea aprobe txatu zuten umea hil zela esateko. Gizonak, epaitegitik itzultzean, umea erakusteko eskatu zuen, eta erdi ilunpean zegoen gela batera eraman eta erizain batek izara artean bilduta zeozer erakutsi zion. Auskalo, agian, izarak besterik ez ziren egongo! Behin eta berriz eskatu arren ez ziguten alabaren gorpua itzuli. Lur emateaz beraiek arduratuko zirela esan ziguten. Orain ari gara ezagutzen guzti haren atzean zegoen negozioa eta bidegabekeria”.

Geronimaren esanetan, “badirudi azpik-

ria hartan jende garrantzitsu asko zegoela nahastuta: sendagileak, erizainak, emaginak, mojak, hilerrietako langileak... Sekulako mafia eta negozioa zegoen jarduera horien atzean”. Haurrak modu irregularrean erregistratzen zituztela ere azaldu du: “Haur bat jaio-tzen denean, medikuak nahitaez jaso behar ditu erditu duen emakumearen datuak eta horiekin erregistratu behar du haurra, nahiz eta ondoren adopzioan eman. Kasu askotan, ordea, umea erosten zuten gurasoek biologi-koak baliran erregistratzea lortzen zuten”.

Azaldu duenez, “ezintasun eta haserre handia” sentitzen dute, erakundeek ez dituztela lagundu nahi uste dutelako: “administrazioak delitua egin duten pertsonen interesak biktimen gainetik jartzen dituzte”.

Esperantza izaten da, ordea, galtzen azkena, eta kasu horien lekuko izan eta horrekin lasai ez dauden pertsonen testigantzak dira euren itxaropen nagusia. Era berean, bi aldeetako bilaketa oinarritzak da elkar aurkitzeko, gainerakoan ezinezkoa da, arrastoak ezabatu dituztelako. Horregatik, borondaterik gabe haurrak eman zituzten emakumeei edota haurra lapurtu zitetela uste dutenei eta familiei bila hasteko eskatu die. Hala, urrats garrantzitsua litzateke euren seme edo alaba modu irregularrean adoptatu zutenek hitz egitea, eta adoptatuak izan eta identifikatuta sentitzen diren pertsonen DNA frogak egitea, ondoren batzuen eta besteen DNAk al-





Geronima Rodriguez, Amatasunaren irudia ondoan duela.

deratu ahal izateko. "Biktima asko daude hemen; lapurtutako umeak eta haien guraso biologikoak ez ezik, haurra erosi zutenak ere biktimak dira. Zalantzarik ez dugu azken horiek ez zutela benetan egiten ari ziren irregulartasunaren kontzientziarik izan.

Geronima kontziente da alaba topatzea ez dela lan erraza izango. "Nire asmoa ez da hark bere bizitza osoa ahaztu eta egun bate-tik bestera gu maitatzea. Gauza bat argi esan nahiko nioke, ez nuela abandonatu, ez saldu. Beti pentsatu izan dugu hilda zegoela. Egia jakin dezan nahi dugu".

## ANONIMOA

1970eko abenduaren 25ean jaio eta hiltzat eman zuten semearen ama

### "Sinestu egin nuen hil zela"

Ez du izenik eman nahi; bere esperientzia eta bizipenak azaltzeko, ordea, oztoporik ez du. Hilabete batzuk baino ez dira pasatu bere istorioa telebistan ematen ari ziren erreportaje batean islatuta ikusi zuenetik. Han entzun zituen kontu asko burutik kendu ezinik dabil ordutik.

"Nire hirugarren haurdunaldia nuen, aurretik seme-alabak nituen, zesareaz izanda. Minekin hasi eta Donostiko Arantzazu Ospitalera eraman ninduen gizonak; baina etxera bidali ninduten, min handiagoekin hasi arte. Etxera joan orduko ikaragarritzko minekin hasi nintzen, eta hurrengo goizean berriro joan ginen ospitalera. Zesarea egiteko lokartu egin ninduten eta konturatzerako egin zizkidaten egin beharrekoak. Erditzearen oroitza-penik ez dut. Erditzean zilbor-hestea lepoan korapilatuta hil zela umea esan ziguten. Gizonaren eta haren amaren bitartez jakin nuen nik albistea. Gizonari ume motz bat erakutsi zioten, baina ez zen lasai geratu eta Azkoitira etorri zen, anaia hartu eta berriz ospitalera joateko. Koinatuak umea ikusi nahi zuela eta gorputegira eramateko eskatu zuen, baina gorpuarekin beraiek arduratuko zirela eta erizain batek ez zion ikusten ere utzi".

"Nik, noski, sinestu egin nuen hil zela. Hildako semearekin beti akordatu izan naiz, baina urte guzti hauetan ez dut pentsatu ere egin horrela izan behar ez zuenik. Ez dut sekula gaizki pentsatu. Nola ba! Baina, telebistan eta prentsan ume lapurtuen kontua hainbeste entzunda, eta umearen gorputza ikusten eta geurekin etxera eramaten utzi ez izanak susmo txarrak piztu zizkigun eta hortik hasi gara. Ama bezala jakitea seme bat izan

eta hor nonbait bizi dela... oso gogorra da. Buruan pentsamendu asko dabilzkit. Galduguna, bizirik badago... eta hori ez dago berreskuraterik".

Azpeitiko beste emakume baten bitartez jarri da harremanetan SOS Lapurtutako Umeak Euskadi elkartearekin. "Pausoak ematen hasi berriak gara, eta oraindik ezer gutxi egin dugu. Arantzazu Ospitalera eta Polloe hilerria joatekoak gara, historia kliniko eta heriotza ziurtagiria lortzeko asmoz".\*

## ANONIMOA

1981eko uztailaren 13an jaio eta hiltzat eman zuten semearen ama

## "Sekulako mafia zegoen"

Urak puskatzean gizonak lagunduta Tolosako Asuncion Ospitalera joan zen Azpeitiko emakume hau. Bere aurreneko haurdunaldia zuen; gerora bi alaba izan ditu. "Igandea zen, minik ez nuen, baina lasaigarri bat eman zidaten, eta hurrengo goizera arte hala egon nintzen. Minik gabeko erditzea izan nezan lokartu egin ninduten, eta ordu gutxira esan zidaten haurra hilda jaio zela. Pentsa, haurra lurperatzeaz beraiek arduratuko zirela esan zidaten, eta lurperaketa ordainarazi zidaten, 1.000 pezeta inguru". Ez zioten erditze-agiririk eman, ezta hilotza non lurperatu zuten zioen paper mutur bat ere.

Emakumeak kontatu duenez, semea hilda jaio zela jakitera eman ondoren, erizain bat etorri zitzaion logelara, hilotza ikusi nahi zuten galdezka. "Nik orduan ez nuen hildako umea ikusteko ez animorik, ez gogorik. Gizona eta haren ama joan ziren haurra ikustera. Gela

## Kontraesanak

III Esku artean jaiotza nahiz heriotza-agiririk eduki ez arren, ospitale batek hildako semearen edo alabaren gorpua familiari itzuli ez izana zantzu adierazgarria da susmo txarrak areagotu eta ume lapurtuen negozioa izan zela pentsatu eta baieztatzeko. Izan ere, ospitale batek sekula ez du eduki hilotzak lurperatzeko eskumenik. Are gehiago, gutxinaka-gutxinaka, gehituz doaz topo egin duten familia biologikoen eta lapurtuak izan ziren seme-alaben kasuak.

Geronima Rodriguezen kasuan, agiri ugari berreskuratzea lortu du, eta haietan kontraesan ugari daude: "Polloeko ziurtagirian ez datoz bat lur emate data eta heriotza data. 1974ko azaroaren 10ean jaio zen; ustez 1974ko azaroaren 12an hil zen; eta ustezko hobiratze data 1974ko urriaren 16an dago jasota, ia jaio baino hilabete lehenago. Era berean, umea hil eta handik ia hilabetera egiten diote autopsia, 1974ko abenduaren 12an. Autopsia horren laburpen bat, ordea, ospitalean alta hartu zuen egunean bertan entregatzen diote Geronimari".

Horrelako zantzu adierazgarriak medio, fiskaltzak ikerketa prozesu guztia polizia judizialaren eskuetan utzi du. Ehunka kasu ditu esku artean poliziak, eta guztien oinarriak amankomunean aztertzeaz gain, kasu bakoitza banan-banan ari da ikertzen.\*

ilun batera eraman zituzten, eta kristal baten atzetik trapu artean bilduta zeozer erakutsi omen zieten. Auskalo zer zegoen han!".

30 urte igaro dira ustez hil ez zen semea kendu ziotenetik. "Urte hauetan guztietan, familia osoak buruan izan dugu pasatu zena. Eta duela hilabete batzuk, 30 urte inguruko gazte baten ezaugarriek arreta deitu eta antzekotasun haren harira hasi gara ustez bizirik dagoen semearen bila; badakigu, ordea, zaila izango dela aurkitzea".

Geroztik, gertatu zenaren arrastoa atera nahian, batean eta bestean jo du atea; alferrik, ordea: "Duela pare bat hilabete Asuncionera joan nintzen klinika-historiala eskatzera, baina hango erregistroan ez dute jasota 1981ean umerik erditu nuenik. Tolosako ospitalean ez dago ez jaiotza, ez heriotza-agiririk. Ezta ezer ere. Ni ez naiz Asuntzionen existitu. Ba al liteke hori? Kristorena da! Sekulako mafia zegoen! Tolosako erregistroan ere izan gara, nik erditu nuen urte hartan fetorik edo lurperatu zuten jakiten, baina han ere ez zegoen inolako dokumenturik. Apirilean, berri, DNA froga egitera joan nintzen Donostira, eta listuaren lagin bat hartu zidaten. Ona litzateke beste aldekoak ere jakitea adoptatua dela, berak ere DNA testa egin dezan, baina...".

Urte asko pasatu arren, atzo izan balitz bezala gogoratzen ditu erditzean artatu zuten emagina eta mediku-ginekologoa: "Izenak eta dena dakizkit. Emagina Mari Karmen Ibañez zen. Oraindik bizi da, baina burua ez omen du ondo. Ginekologoa, Benito Izagirre, hilda dago, baina haren semeak han bertan egiten du lana, eta jakin dugunez azken hori ere inplikaturik dago kontu honetan. Badakizu, nolako zura halako ezpala".

**arte eta disziplina ikastegia**

**di**

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
**matrikula urte guztian zabalik**

**KIRURI**

**JATETXE**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tlfnoa.: 943 81 50 08

Faxa.: 943 15 03 62

**uba**

aholkularitza

Aholkularitza  
Fiskala  
Laborala  
Santablen

Gestori lanak

Finken administrazioa

Gestio inmobiliarioa

Tlf: 943 157 525 Faxa: 943 157 275  
Emparen kalea, 45 • uba.azpeitiazalea.net

**ORDULARI**

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
**20730 AZPEITIA**



# Euskarari egin Klik

**A**urten gure herrira dator ikastolen festa. Aurtengo antolatzaileek aukeratu duten lema oso egokia deritzot euskararen kasuan erabiltzeko. Klik dioen onomatopeia horrek oso ondo adierazten du gure hizkuntza zaharrak bizi duen egoera. Bere ezagutza asko handitu da azken urteetan, baina ez bere erabilera.

Klik egin eta barruan daramagun eta hain ondo ezagutzen dugun hizkuntza martxan jartzea komeni zaigu. Eta ez bakarrik kapritxo hutsagatik, guztiz beharrezkoa delako bere etorkizuna bermatzeko. Ez da txantxetako kontua, 2009ko UNESCOren hizkuntzen liburu gorrian agertu baitzen euskara galtzeko arriskuan dagoen hizkuntza bat bezala.

Euskara dugu gainera finlandiera, estoniera eta hungariarrarekin batera jatorri indoeuropearra ez duen Europako hizkuntzetako bat. Nork ez ditu entzun euskararen jatorriaren inguruko teoria guzti horiek. Baina, Koldo Mitxelena euskaltzale porrokatuak zioen bezala “Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria”. Zer egia handia Errenteriko jakintsuak esana, berak ia inork baino hobeto baitzekien frankismoko urte latzetan gure hizkuntzak jasandako jazarpena eta negazioa. Ia miraria dirudi hain indartsuak diren bi hizkuntzen artean (gaztelania eta frantsesa) nola ez duten ito euskara.

XIX. mendean hain zuzen bai Frantzian eta bai Espainian hezkuntza publikoaren oinarriko legeak egin ziren, baina aintzat hartu gabe bere mugetan zegoen hizkuntz aniztasuna. Eskola publiko hauek arma boteretsuak izan ziren gobernuen eskuetan iada nahiko erdaldunduta zeuden eremuetan oraindik gehiago euskara ahultzeko.

Euskara maite dugun guztiontzat zorionez Eusko Ikaskuntzak XX. mendearen hasieran eskola euskaldun baten oinarriak ezarri zituen. Garai berdinean abertzaletasunak bere lehen pausoak ematen ari zen. Horregatik, ez da kasualitatea giro horretan Europan zori-



markel mendizabal

“Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria”. Zer egia handia Koldo Mitxelenak esana


gaiztoko gerra hasten zen urte berdinean (1914) Donostian Muñoak Koruko Andre Mariaren eskola sortzea. Berau izan zen gaur egungo ikastolen jatorria.

Bide luzea egin da ia mende honetan, baina XXI. mendean ere gure hizkuntzaren iraupena bermatzeko esfortzuak ez dira gutxiegi behin ere izango.

## Badator festa!

Iritsi da bai 11 urte eta gero, eta hirugarrenez, gure herrian Ikastolen eta luzapenez euskararen egun handia ospatzeko eguna. 1977an abian jarri ziren urteroko ospakizun hauek bere funtsa mantentzen dute, nahiz eta kanpoko itxura beharbada zertxobait aldatu den: dirua biltzea ikastolen behar guztiei erantzuteko.

Hain erditze bortitza izan zuen Ikasberri Ikastolak ere 16 urte betetzen dituen honetan festa hau antolatzearen ardura izango du. Ziur nago herri girotik jasotako laguntzekin posible izango dela festa hau arrakasta handi batean bihurtzea. Ala izan dadila!! Plazara euskara, bihotzetik ahora!!\*



# Hitzez hitz, klik eta klik!

**1** 965-1966 eta 1995-1966. 30 urteren aldearekin hasi ziren bi ikasturte horiek, baina bi ikasturteek asko dute amankomunean. Poza, irriak, negarrak, ausardia, beldurra... Finean apustu sendo bat. Ikastolen aldeko apustu sendoa, alegia. Lehen ikasturte hartan, Patxi Azkargorta, Inaxio Olarte eta Anbroso Goenagak ireki zuten bidea. 30 urte beranduago, ehunka familiak hartu zuten Ikastolen aldeko bidean aurrera egiteko oinordetza.

Lehen ikasturte hartan ez, baina 1995-1996 ikasturtean han nintzen. Ikasberrin. 12-13 urte izango nituen, eta guretzat abentura hutsa zen hura. Lehenengo teilaturik gabe, ondoren teilatua bai, baina itoginekin... Esklabetako atletik Loiolako alberge edo bakeira, ondoren frantziskanetara, betherramdarretara, eta azkenik Loiolatxora. Han pasatu genituen guk, gure adin bueltakook, Ikasberriko eraikin dotorea estreinatu aurreko pare bat ikasturte. Eta nola ez gogoratu, Luis, Lurdes, Maite, Uri, Alberto, Marijo, Arantxa, Eli, Txala, Mikel... gure irakasleak. Ez zuten pazientzia gutxi izan egoera aldrebes haietan gu gobernatzen. Gehiago edo gutxiago asmatu zuten, eta ez da gutxi!

Ondo gogoan ditut lehenengo egun, aste, hilabete eta urte haiek. Orduan abentura hutsa zen, baina denborarekin hasierako urte haien garrantziaz jabetzen joan naiz (edo gara). Irailean 17. ikasturtea hasi dute Ikasberrin. Hori gogoratu zidan orain gutxi irakasle ohi batek. Udaberri eta negu asko pasatu dira lehen urte haietatik. Eta zorionez, ikasle asko ere izan gara eta dira Ikasberritik pasatutakoak. Eta nola ez, guraso asko dira gurean ere Ikastolen aldeko apustua egin eta eginguten dutenak.

## Izena eta izana

Azpeitian bezala, Sohutan, Santurtzin, Argantzonen, Baigorri, Lizarran eta Hazparnen ere badira Ikastolak. Euskal Herri osoan



■■■■■■■■■■ihintza agirretxe■■■■■■■■■■

■■■Egunez egun, batean zein bestean, Euskal Herria margotzen segitzen dute.

103 Ikastola daude. Egunez egun, batean zein bestean, Euskal Herria margotzen segitzen dute. Euskal Herri osoko txoko guztietara euskara, euskal kultura eta gure baloreak zabaltzen dituen erakunde indartsua da ikastolena.

'Ikas' (ezaguera jaso) eta 'ola' (lantegia) sustraien baturatik eratorriko hitza da Ikastola. Niretzat ikasteko lantegi baino gehiago esperientzia lantegi izan zen Ikastola. Ikasitakoa baino gehiago gogoratzen dut, behintzat, bizitakoa! XX. mende hasieran sortutako hitza da. Hasiera hartan, euskaraz irakasten zuten eskolei deitzeko erabiltzen zen. Urteak aurrera egin ahala, ordea, hezkuntza eredu propio bat oinarri dute Ikastolek.

Hantxe. Hantxe (eta nola ez, etxean) jaso nuen liburuetan jaso ezin dena. Eta poztzen nau azpeitiarrek eredu horren alde gero eta sendoago egiten dutela ikusteak. Aurtengo Kilometroetako festarekin etorkizunerako haurreskola egin nahi dute. Txiki-txikitatik gero eta azpeitiar gehiago bertan hazi eta hezteko. Ez da erronka makala! Animo zuei. Hitzez hitz, klik eta klik egingo dugu bidea!✴





# urrategideko

**"ETXEBELTZ -  
IZARRA"  
ESKAINTZA ETA  
PROMOZIO  
BEREZIAK.**

altzariak & sukaldeak



**círculo**  
muebles

- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak




## 1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14  
[urrategideko@urrategi.eu](mailto:urrategideko@urrategi.eu)  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



**GORA.** Ea aurkitu duenak itzultzen dion argazki-kamera.

Argazki-makina berreskuratzeko ez ezik, euskararen normalizazioa lortzeko bidean urratsa eman du herritar honek. 📎 Uztarria



**BEHERA.** Erakusleihoetako kartelak euskaraz.

Adinduek euskaraz ez dakitelakoan? Bidaia-agentzia honek hobe luke kartela euskara hutsean jarriko balu, aitona-amona gehiago joango litzaizkioke. 📎 Uztarria\*



Pako Aristi.

## ESANA DAGO

III “Jarraipen luzea eman diot organista figurari; horretan euskaldun portatu naiz”

III “Zeure lana egin duzunean, pertsonak jakin behar du erretiratzen lasai”

III “Ez dira [urte] gutxi, pentsa Jesus bera jubilatuta zuten 33 urterekin”

PAKO ARISTI  
idazlea eta  
organo-jotzailea

III “Ederra izan da Telmo Esnalen filman lanean jardutea”

NAGORE ARANBURU  
aktorea



kutxa



CITROËN

Aiirtza  
Autoak

943 811 915 - AZPEITIA  
aiirtzaautoak@telefonica.net





# Garaian garaikoa

**Z**ahartzen ari naiz. Ilea zuritu, reflejoak urruti, auspoa gero eta lehenago berotu. Zahartze fisikoaren ezaugarriak. Baina fisikoki bakarrik ez, gorputz eta arima ari naiz zahartzen. Hau izango da Baxarri handiak zahartosis bezala bataiatu zuena. Lehengoa oraingoa baino hobea. Gure gurasoek Francorren hobeto bizi zirela bazioten, nik XX. mendean orain baino hobeto bizi ginela esaten hasia naiz. Eta ustea arrazoitzeko pare bat adibide jarriko dizkizuet.

Gure haurtzaroan independentziarik ez genuen, baina ia guztiz garatutako autogober-

nua bai. Etxean pakea ematearen truke egun osoa kalean ibiltzeko eskumena genuen; gurasoek gure irakasleak ez zituzten fitxatuta, gurasoak irakaslea ezagutzea okerraren adierazle zen. Egungo haurrak, aldiz, guraso zentralisten diktadurapean bizi dira. Egun osoa eskolten zaintzapean. Irakasleen berri "zehatza" izateko, berriz, parke eta terrazetan, egunero, Salvame sutsuak ditugu.

XX. mendean bi hitz nahikoa ziren gauzak behar bezala adierazteko. Gaur egun, konturik hutsalenak ere Oxford-eko menbretea duela dirudi. Esaterako, opor osteko sindro-

me emozional edo depresiboaz ari naiz. Hori lehen alper-gaitza deitzen genion, alegia, ondo bizitzera ohitu eta bat-batean berriro ere pobreaken bizimodura moldatu beharra. Lehen inork adarrik ez jotzeko alper-gaitza, almorranak bezala, bakardadean sofritzen zenuen. Orain kezkatzeko moduko zerbitu denez, psikiatra edo sikologoarengana joan behar duzu, eta jendeak zutaz erruki du.

Zalantzarik ez dut. XX. mendean hobeto bizi ginen. Hori bai, orain 18 urte izango banitu, seguru, ni ere, orain hobeto biziko nintzatekela. Garaian garaikoa. Klik, eta akabo.\*



|||||||txetxu urbieta|||||||

## IKUSTEKOA|||||||



## ▲GAZTE KRISTAUEK MUNILLA LAGUN.

Jesusen Lagundiak antolatuta MAGIS 2011 Loiola ekimenaren baitan "mundu osoko inaziotar espiritudun" hiru mila lagun inguru bildu ziren Loiolan, abuztuaren 5etik 8ra. Noski, eliz kontuatarako herrian afizio handirik egon ez, eta Loiola inguruak betetzera beharko kanpotik etorri jendea. J. I. Munilla Donostiako gotzaina ere izan zen Loiolan. Uztarria Eli Aizpuru\*

## IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### *Palestina hizpide*

**HITZALDIA.** Palestinak ez du etorkizunik, ala bai? Sanagustinen Palestinari buruzko *Gueto* dokumentala eta hitzaldia izan ditugu, Ali Mohammed Jadeh-en eskutik. Adierazgarria izan zen, komunikabideetan entzuten dugun informazioarekin alderatuz, bertan jakiteko aukera izan genuena. Errealitatearen errealtatea, palestinar baten eskutik. Informazioa desinformazioaren aurka.



izaskun egiguren



### *Ikasturte berriarekin...*

**IKASTERA.** Ikasturte berriarekin asmo berriak azalera-tu eta gauza berriak egiteko gogo biziaz abiatzen gara: Ikastea hobetzeko modu bat da, bakoitzak bere interesen arabera antolatzen duen garapen prozesua. Hasitakoari amaiera ematea, berriz, urteroko erronka.



### *Akordioa eten da*

**GALLARDO AZPEITIA.** Brasilgo CSNk deusestatu egin du Gallardo Taldearen hainbat enpresa erosteko akordioa, eta enpresa horien artean gure herrikoak daude. Irailean ezagutu dugu berria, aurretik dena lotua zegoela entzun baguenen ere. Herritarrak kezkatu

gaude, langile askoren etorkizuna kinka larrian egon daitekeela ezagutu eta gero. Eta, oraingoan, egoera honen erantzuleak zeintzuk diren herritar askoren galdera da, zeintzuk diren egoera honen arduradunak.✱



## INKESTA

## Eskolaz kanpoko jardueraren batera joango?

Ainitze Agirrezabala

MARIA ETXABE

7 urte



"Ingelesa ikastera joaten naiz eta baita musika eskolara ere.

Oraingoz ez dut instrumenturik jotzen, solfeoa ikasten ari bainaiz. Hil honetan dotrinara joaten hasiko naiz. Libre ditudan arratsaldeetan etxean egoten naiz, eskolako lanak egiten".

ALEX TEJERA

10 urte



"Lagun Onakera joaten naiz futbolearen entrenatzera.

Eskola kirolean, berriz, saskibaloian eta futbolearen eman dut izena. Ingelesera ere joaten naiz, astean hiru aldiz".

IVET COCA

7 urte




"Amak gozoki denda dauka eta eskolatik irteten dudanean

berarengana joaten naiz, laguntzera. Gustura hasiko nintzateke baleta edo gimnasia eritmikoa ikasten".

DENI SLARRAÑAGA

7 urte



"Laster dotrina ikasten hasiko naiz.

Bazkalondoan, eskolara sartu aurretik, ingelesa ikastera joaten naiz. Gainontzean, lagunekin jolasteko aprobetxatzen dut".\*

## Giro pozoitua

**H**ala egon da gure artean, azken hilabete hauetan, Nuarbeko urtegian erailda azaldutako emakume baten gorputz hilotza, eta geroago balizko hiltzailearen aitortzaren ondoren sortutako zurrunbilo eta anabesak Urola-Kosta osoan. Bazirudien azken aldera gauzak lasaitzen eta baretzen ari zirela, eta gai honetaz isilik egotea erabaki nuen, gai hau gehiago ez nahasteko. Baina, irailaren 14an Andu Lertxundik *Berrian* idatzitako kronikak edukia asaldatu nau eta bultzatu lerro hauek idatzera.

Anduk zioen: "Mezu bat jaso dut gaztelaniaz, esaldi labur batekin eta mutil nerabe baten lau argazkirekin... *Argazkiotako putakumeak X.X. hil du. Gera zaitez bere aurpegiarekin, legez adingabea delako laister kalean izango baita. Pasatu.* Eta idazleak jarraitzen du: "Argazkiak bolo-bolo dabilta, telefonotik telefonora... Pasatzeko eskatzen dena da: balizko hiltzaile atxilotu baten lintxamendurako deia aske gelditzen denerako... Eta mezua batetik beste-



higinio oartzabal

ra badabil, horrek esan nahi du jende asko ari zaiola eusten mezua gonbidapenari".

Mezu hau zabaltzen duten mendeku gose direnei esan nahi diet, hiltzailearen —dena delarik ere— pareko ipintzen dutela euren burua. Gorroto sentipen hori baduize, zuek ez zarete hobeak.

Pentsatzen dut Barne Sailak meatxuzko mezu horiei jarraipena egingo diela, eta neurriak hartu ere bai edozer ekintza basati eragozteko.

Nire ustez Gipuzkoan gehien saltzen egunkariak badu eragina —horrelako intentziorik gabe, noski— giro nahasi honetan. Egunero eta aste luzeetan *reality show* moduko bat jendearen kuriositate eta morboa elikatuz, prentsa sentsazionalista bat bihurtuz bere salmentak ugaltzeko. Ez du erruki eta errespetu handirik agertu biktima eta balizko hiltzailearen familiekiko, beren atsekabe eta samina areagotuz etengabe. Beren editorialetan familien babesle sutsu agertzen direla esaten badute ere.\*

## galdetzen hasita, frantziskanen komentuko elizaren egoerarekin zerbait egiteko asmorik ba al da?

Uztarria

## Shangri-La

**1**933an *Lost Horizon* izeneko eleberrian J. Hiltonen Himalaian galdutako leku bat, Shangri-La, deskribatu zuen. Bertan, pertsona guztiak zahartu gabe bizi ziren armonian; eta Capraren filmari esker, lurrean paradisu bihurtu zen.

Duela sei urte Ezkerraldetik Azpeitira alabarekin etorri nintzen; mendiz inguratuta eta semafororik gabeko herrira. Shangri-La bezain isolatuta zegoela iruditu zitzaidan. Hiltonen bidaiariekin bezala, ez nuen norabidea aukeratu, lanera etorri nintzen baina lehen bait lehen Bilbora bueltatzeko asmoarekin. Dena den, eleberrian gertatzen den moduan bertakoekiko harremanak erakutsi zidan beste mundu bat.

Urolako arana komentuz betetako lurralde karlista zela uste nuen. Baina bertako herri mugimenduek harritu ninduten. Ezkerraldean denbora luzez garaituak eta zigortuak izan ginen. Azpeitian, ordea, gauzak egiteko kalera irteten da eta oso eredu bizi-



miren alcedo

biziak garatu dituzte soziopolitikan: Loiola alboan komuna sortuz, edo enpresa, ikastola eta etxebizitza kooperatiboak eraikiz. Baita harritu ninduen aita hil zenean, gure auzokoek nola lagundu zioten, kolektiboak gizasemea babestuz.

Shangri-Latik biztanleak irten bezain fite zahartu eta hiltzen ziren, hori dela eta, isolatuak bizi ziren.

Globalizazio-zaleek Shangri-La desagertarazi aurretik, parke tematiko bihurtuko zuten. Orain krisialdiari esker, Azpeitiko oinarriak galtzen ari gara: elkartasuna eta auzo-lana. Horrela, EREk, autoezarritako betebeharek —hipotekak, autokarabana, Jakako etxea, etabar— inposatu ditzakete banakako irtenbideak, kolektibotik at (azken grebata ikusi genuen zer gertatu zen). Auskalo zein den gaurko egoera ekonomikoaren irtenbidea, baina Bizkaiko lurraldeak eta langileak etsituta daudela ikusi eta gero, argi daukat kolektiborik gabe ez dagoela Shangri-Larik, anabasa eta heriotza baizik.\*



andoni salegi

hi gizendu in haiz,  
ezta?

bai zea...  
zu dixkurauta zaude.

belarra janda  
balitz

ji ji ji

jarraituko du...





## Hamar urte

**E**gun garrantzitsua izan zen bi mila eta bateko irailaren hamaika, mugarria, munduarantzat. Baita zuretzat ere. Hemengo goizean, Blanca Urgell-en e-maila jaso zenuen, "euskararen historia" gainditu zenuela esanez. Horrek esan nahi zuen, uda guztia Loiolako liburutegian pasatu ondoren, karrera bukatu zenuela. Astearte zen, eta azokara joan zinen, amaren bila, eta tragoa eta pintxoak hartzera joan zineten Eguzkitzanera. Lepotarrakada satisfakzio zeneukan barrenean borborka. Gero, arratsaldeko hiruretan, New York-eko goizean gertatu zena ikusi zenuen,

zuzenean, Antena 3 telebistan. Eta gerokoa badakizue.

Harrezkero, gauza asko aldatu dira: inoiz imaginatuko ez zenuen lanean eta lantokian egiten duzu lan; Argizko bi dorre ikusi dituzu New York-en, dorre bikien lekuan; Bi mila eta hogeita bostera arte hipotekatu zara; Inbaditu dituzte inoiz entzun ez zenituen hiriak, aberriaren izenean; Estimaten zenituen irakasleak Jaurilaritzako sailburu sartu dira; Beste begirada batekin begiratzen diezu ingurukoei, eta munduari; Krisiak etorri dira, ekonomikoak eta bestelakoak, garaipenak eta frakaso-



||||||| **eñaut frantzesena** |||||

ak; Elizak ixten edo zurruterako eta kulturarako leku bihurtzen ari dira; Atera dituzte soldaduak, aberriaren izenean, orain aditzera baduzun hiri horietatik; Hainbat alkate aldatu ditugu herrian, alderdi desberdinetakoak; Hainbat negar eta barre egin duzu hamar urte hauetan, hainbat parranda eta hainbat kontzertu.

Eta hamar urterako kartzelara sartu dituzte estimaten dituzun politikariak.

Hemen gauzak asko aldatu dira, eta halere pentsatzen duzu guztiak berdin jarraitzen duela.✘



**Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.**

izen-abizenak:

helbidea:

enha edo nan zenbakia:

telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia  
e-posta: [uztarria@uztarria.com](mailto:uztarria@uztarria.com) • telefonoa: 943150358

**uztarria**  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA



## ▼ LEKUKOAJ

Joan den urrian Azpe  
aurtengo Kilometroa  
zuen, ordutik hamaik  
bailaran. Klik lelo har  
euskararekin, teknol  
lotutako ekitaldiak a  
guztiak herriko eta h  
eragileren eta aurpe  
hartzea jaso dute. An  
ordezkariak lekukoa

# Hamaika ekitaldi

12 lan talde jo eta su aritu dira azken urtebetean.  
Kilometroen harira urtean zehar antolatutako hainbat  
klikekitaldiren argazki bilduma egin du Uztarriak.



## ASO, URRIAN.

Herriko Ikastola Ikasberrik  
k antolatzeko lekukoa hartu  
a ekitaldi egin da Urola  
tuta, kirolarekin, kulturarekin,  
ogia berriekin, hezkuntzarekin...  
antolatu dira. Ekitaldi hauek  
herriatik kanpoko hainbat  
gi ezagunen babesa eta parte  
gazkian, ikastolaren  
jasotzen.



## ▲AUKERA ZABALA.

Gaurko eskaintza ez da mugatzen garai bateko Kilometroetan ateratzen ziren bi nikietara. Egun, arropa aukera zabala eskaintzen dute, argazkian ikus daitekeen bezala.

## ►BIDEOKLIKA.

Elkarren estudioetan eta Ikastolan grabatu dute Kilometroetako bideoklipa. Abestia Ze Esatek! taldeak egin du eta ilusioa lagun, ikasleek gurasoek, ikasle ohiek eta herriko beste hainbat lagunek hartu dute parte. Kantuak dioen bezala, auzolana elkarlan bihurtuz, eskuz esku, klik txiki asko pilatuz egindako lan handia.







### ▲ SANINAZIOETAN TXUPINAZOA.

San Inazio bezperan, festei hasiera emateko txupinazoa Azpeitiko Ikastola Ikasberriko kideek eta Julian Barrenetxea Abesbatzakoek bota zuten: abesbatzak 25 urte bete dituelako eta Kilometroak 2011 Azpeitian delako.

### ► KLIKBERTSOEN UZTA.

Bertso saioa ere izan zen uztailen Kilometroen alde. Soreasu aretoan aritu ziren Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Amets Arzallus, Josu Oiarzabal *Xenpelar* eta Jokin Uranga. Gai-jartzaile Sebastian Lizaso aritu zen.



### ▲ KLIK HITZARMENAK.

Kilometroak 2011ren harira, hainbat lankidetza hitzarmen sinatu du Azpeitiko Ikastola Ikasberrik. Besteak beste, argazkian, Uztarria Komunikazio Taldearekin.








### ▲ IBILALDI NEURTUA.

Lagun Onak MBrekin elkarlanean, Klik Mendi Ibilaldi Neurtua egin zen. 280 mendizale handi eta txikik hartu zuten parte. Argazkian, Sanagustinpean indarberritzen.



### ▲ MAHAI INGURUAK, MARTXOAN.

"Herriak euskaraz: klik" lelo hartuta hiru mahai inguru egin ziren Sanagustinen. Han landu ziren gaiak honakoak izan ziren: Teknologia eta sareak: euskara, gazteak eta hezkuntza; Herri mugimenduak: gaurko egoera eta etor daitekeena; eta Azpeitiko euskara. Argazkian: Azpeitiko euskarari buruzkoan parte hartu zuten hizlariak.



### ▲ REALEKOAK GARMENDIPEN.

Realak Korsikako AC Ajaccio futbol taldearen kontra jokatu zuen uztailaren 23an. Garmendipe futbolzalez josi zen. Aurredenboraldiko eta Kilometroen aldeko futbol partida Realak irabazi zuen. Partida hasi aurretik Ikasberri Kirol Elkartearen sortzaileak omendu zituzten.✕

# Zerura begira... Klik!

Jende askoren urtebeteko lanaren azken geltoki, urriaren 2an hirugarrenez hartuko du Azpeitiak Kilometroen festa. 📎📍 Ainitze Agirrezabala, Mailo Oiarzabal

**K**lik hitza, hizkiak, hotsa, behin eta berriro ikusi eta entzun dira Azpeitian azken urtean. Ekitaldiak, iragarpenak, babes agerraldiak, hitzarmenak... denetarik izan da, 2011ko Kilometroak festa herrian ospatuko dela gogoratuz eta festarekin eta haren helburuekin bat egitera animatuz.

*Klik!* da Azpeitiko Ikastola Ikasberrik antolatutako Kilometroen leloa, eta iritsi da azken *klik!*-a egiteko unea. Urriaren 2an, igandea, Gipuzkoako Ikastolen urteroko festa nagusia egingo da Azpeitian. Herriak hirugarren aldiz hartuko du festa hori, 1979koaren eta 2000. urtekoaren ondoren.

Hogeita bat urte igaro ziren aurreneko bi edizioen artean, eta hamaika urte pasatu dira aurreko Kilometroak herrian ospatu zirenetik. Urte asko ala gutxi iruditu, azpeitiar gehienak, eta zer esanik ez Ikasberri ikastolako kideak, ez dira ahaztu egun hartaz. 2000.eko Kilometroak aipatzea eta egun hartako euri-jasa etengabeak eta eguraldi (ia) ezin okerragoa gogora ekartzea bat izaten dira.

Askoren hilabeteetako lana eta egun hartan jarritako hainbat ilusio eta itxaropen lau-

## |||INGURUA ZAINDU|||||

**|||Izan txukuna, laguna!** Milaka lagun elkartuko da Azpeitian Kilometroetan. Horrelakoetan, festaren ondorengo irudiak etsigarriak izaten dira ia beti, bazterrak narrastuta. Antolatzaileek inguruarekiko errespetuari eta garbitasunari aparteko garrantzia eman nahi izan diote. Horren adibide dira edalontzi berrerabilgarriak —ehun mila— eta komun portatilen garbiketa.

sotu zituen orduan inork kontrolatu ezin duen eguraldiaren faktoreak. Hamaika urteren ondoren, beste hainbesteren urtebeteko lana eta ilusioak eta helburuak tarteko, urriaren 2a zerura begira esnatuko da. Zaparradak jendetzarenak izan daitezela!

## Proiektu berritzailea

Sei kilometroko ibilbidea, bost gunen nagusiak eta Azpeitia jendez betetzea dira antolatzaileen nahia, markatutako helburu ekono-

mikoak bete eta, jasotako diruarekin, Azpeitiko Ikastola Ikasberri haur eskolaren inguruan abian duten proiektu berritzailea aurrera eramaten laguntzeko.

Aitor Unanue ikastolaren lehendakariak ekainean azaldu bezala, "Ikastolaren gaurko eraikinean ez zen aurreikusi haur ikastolarik, eta epe motzera ez dugu nahikoa leku izango bertan. Proiektu aitzindaria da, eta ikastolara datorren haurrari egokitu nahi zaio espazio berri hau, egokitzapena espazioari aplikatuz". Egokitzapen hori gauzatzeko behar dute nagusiki dirua une honetan, eta behar horiek asetzen laguntzeko zita aproposa izan daiteke urriaren 2koa.

Eguraldia lagun, jendetza espero dute antolatzaileek Kilometroen egunean. 100.000 lagun ingururen beharrak asetzeko prestatu dute guztia eta prestatutakoa agortzeraino iristea litzateke albisterik onena. Ikastolako guraso, irakasle eta langileek osatutako hamabi lan-talde buru-belarri aritu dira lanean guztia prest izateko, eta 1.500 boluntario bartearen eta bestean lanean ibiliko dira egunean bertan.





## ||| **KMK ZENBAKITAN** |||||

Zortzi zenbaki handi, egun handirako.

**6.000** metro izango ditu ibilbideak eta 5 gune nagusi izango dira, bakoitza bere sarrerarekin.

**14.000** auto eta 400 autobus aparkatzeko tokia prest izango da. Mendebaldetik iristen direnentzat Azkoitian (Oinartxon eta Juin-San Joanen) eta Basarten (autobusak), eta ekialdetik datozenentzat Landetako industriaguneetan eta Lasaon. Aparkalekuak eta ibilbidea lotzeko autobusak etengabe ibiliko dira.

**100.000** edalon tzi berrerabilgarri banatuko dituzte antolatzaileek, ingurua txukun mantentzeko konpromisoaren erakusle.

**15** zuzeneko musika emanaldi jarraitzeko aukera izango da egunean zehar bost guneetan. Hauekin batera, haurrentzako 11 emanaldi eta ikuskizun eta kale animazioa, bertsolariak, dantza taldeak, kirol erakustaldiak... ez dira faltako.

**1.300** bazkari emateko hiru gune izango dira: Kiruri jatetxean, ikastolan eta Berdelariko frontoian. Gainera, 5 txosna erraldoi egongo dira, 26.000 otarteko emateko prest.

**1.500** lagun lanean. Txosnetan, sarreretan, txartel saltzen, trafikoa antolatzen, segurtasunean, garbitasunean... Zeregina ez dute faltako Kilometroetako boluntarioek.

**120** zakarrontzi jarriko dituzte ibilbidean zehar, eta 120 lagun arduratuko dira inguruak garbitzeaz, egunean bertan. 80 komun portatil ere jarriko dituzte, horiek ere garbitzaileekin.

**500** ikasle, 300 familia, ikastola bat, guztion laguntzaren zain.





**klik!**  
 KMK2011 AZPEITIA  
 EUSKAL HERRIA  
 AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI

1 Ikastola

2 Garme

4 Loiola

5 Herriko Pl



## Bost gune, hamaika ekitaldi

Sei kilometro izango ditu ibilbideak, eta bost gune nagusi. Txikienentzako, gazteentzako nahiz helduentzako hamaika ekintza eta kontzertu antolatu dituzte, egun guztian zehar.



endi 3 Goena

aza — Zirkuitua

||| **EGITARAU** |||||**1. GUNEA: IKASTOLA.**

09:30. Zirkuitu Irekiera ekitaldia.  
 10:00. Kirol egokituko jolasak.  
 11:00. Zpeiz Mukak!  
 12:00. Irrien lagunekin kanta eta dantza.  
 13:00. The Sparteens.  
 13:30. EHko eta Alemaniako segalariak.  
 14:30. Hipo eta Tomas.  
 15:00. Anje Duhalde.  
 16:00. Urtxintxa Jolas musika emanaldia.  
 18:00. Ken 7.  
**Egun guztian zehar.** Irrien lagunak jolas parkea, puzgarriak, tailerrak...

**2. GUNEA: GARMENDIPE.**

10:00. Revolta Permanent.  
 11:30. Betagarri.  
 13:30. Ze Esatek!  
 15:30. Lauroba.  
 17:00. Kasik.

**3. GUNEA: GOENA.**

10:30. Motozerra erakustaldia.  
 11:30. Bapatean zirko.  
 12:30. Poxpolo eta Konpainia.  
 14:30. Trikizio.  
 16:00. Egurra ta Kitto!

17:30. Des-Kontrol.  
**Egun guztian zehar.** Rokodromoa, puzgarriak...

**4. GUNEA: LOIOLA/LOIOLATXO.**

10:30. Sahatsa dantza taldea (Loiola).  
 11:00. Itsasi dantza taldea (Loiolatxo).  
 11:30. Galtzagorriei Inaxito (Loiola).  
 12:30. Bertso saioa (Loiolatxo).  
 12:30. Herri kirolak (Loiola).  
 13:30. Imuntzo eta Beloki (Loiolatxo).  
 13:30. Txan Magoa (Loiola).  
 15:00. Sendaezinak (Loiolatxo).  
 15:30. Pantxo eta Peio (Loiola).  
 17:00. Kupela (Loiola).  
**Egun guztian zehar Loiolan.**  
 Puzgarriak, haurrentzat tailerrak, jumpya...

**5. GUNEA: HERRIKO PLAZA.**

16:00. DJ Abiba.  
 17:30. Oihan Vega.  
 19:00. Zezen suzkoa.

**ZIRKUITOAN.**

Mauxitxa txaranga, txistulariak, Zpeiz Mukaki, dultzaineroak, Debako elektrotxaranga, erraldoiak, joaldunak, Skandalue, batukada.



Egurra ta Kitto! taldeko kideak. 3. gunean, Goenan, joko dute, 15:30ean. ||| Gaizka Otamendi

**Amenabar**  
 DENDA  
 gortinak, ohazalak,  
 edredoï nordikoak ...  
 Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**AZKOITIA**  
 ERLOJU  
 KONPONKETAK  
 Arana, 5  
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34  
 20730 AZPEITIA  
 Tel.: 943 15 16 40  
**Ekain**  
 ALBARTARI KLINIKA  
 Larrialdia: 943.15.16.40

**IRENE ALTUNA**  
 LORADENDA  
 Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
 www.ialtunadenda.com

# Auzolanean, klik eginez

“Euskararekin identifikatuta sentitzen diren hainbeste mila lagunek bat egiten dutela ikusteak ematen duen poza sekulakoa da”, Lazkanorentzat. Kilometroak egunean bolondres ariko da, lanean.

**B**atzuk festan ibiltzeko beste batzuk lana egin behar. Ondotxo dakite hori Kilometroak egunera begira ez ezik, azken urtebetean ekitaldiak antolatzen jo eta su lanean aritu direnek. Ekitaldi guztiak aurreikusi bezala ateratzeko, dozena bat lan-talde burubelari ibili da, gainontzeko herri-tar eta bolondresekin batera. Hamabi taldetan banatuta, guztira 120 lagun aritu dira lanean, eta egunean bertan “guztia zuzen eramateko” 1.500 bolondres beharko direla aurreikusten dute antolakuntzakoek.

Garai batean Kilometroak jaia egun bakar batera mugatzen bazen ere, egun Kilometroaken lanak urtebete iraute du, eta urtebete asko da jende multzo zabal batek musutruk jarduteko. Julian Lazkano Ikastolako guraso ohiak ez du zalantzarik azkeneko urtebetean ez ezik, egunean ere zer eginga izango dela, eta “beharra non dagoen, laguntzeko prest” dago, “gustura”, gainera. “Kilometroak jaia euskararen al-



Julian Lazkano familiarekin, Kilometroetako arropa desfilean.

deko egun izugarria da. Polita da ikustea handik eta hemendik etorritako haur, gazte, heldu eta zaharrek nola bat egiten duten ideia beraren inguruan”.

## 1979, 2000 eta 2011

Herrian Kilometroak jaia hirugarrenez ospatuko da aurten, 1979koaren eta 2000. urtekoaren ondoren, eta, hain zuzen, Lazkano ere hirugarrenez arituko da lanean, bolondres: “Egia esan, ezin esango dut aurreko Kilometroak jaietako oroitzapen gozozkoak ditudanik. Aurreneko aldi hartan ez nuen denbora asko izan Kilometroak antolatzen laguntzeko. Tailer koskor bat banuen eta lanpetuta ibili nintzen zeharo. Urtean zehar bai, Caja Laboralaren atzeko lokal batean taberna ireki genuen dirua ateratzeko, eta koadrilen artean txandak egiten genituen. Egunean bertan trafikoa bideratzen aritu behar nuen, baina aurreko astean gaixotu eta asteburua ohean pasatu behar izan nuen. Orain hamaika urte, berriz, eguraldiak ezin zuen nazkagarriagoa izan. Anexoko karpan aritu nintzen sagardoaren txotxa zabalitzen. Kristoren zaparradak bota zituen, zelaia ezin aprobetxatu, jende guztia blai eginda... sekulako tristura ematen zuen”.

Urtebeteko lana eta ilusioak tarteko, Ikastolaren helburuak betetzen laguntzeko zita aproposa da urriaren 2koa.✱

**1raye**  
Kafetegia

Hartzubia, 4. • Tel.: 943 157410

**saltoka**

DENDA BERRIA!

Plaza Nagusia, 7 behea  
Azpeitia 943 08 09 50



# Lehen, orain eta gero

**Gema Larrañaga irakasleak, Juan Eizagirre gurasoak eta ikaslerik gazteena den Nora Bikendik moztuko dute zinta, Kilometroak 2011 abian jarri dela adierazteko.**

**K**ilometroak Gipuzkoako Ikastolen festa ikastola jakin baten beharrak asetzen laguntzeko egiten da urtero. Anfitroia eta behar zehatzak aldatu egiten dira urtetik urtera, baina festa egunak badu eredu bat, eta normalean beti mantentzen diren ekitaldiak ere bai, ikastolen alde egitearen helburu orokorrekin batera.

Festari hasiera ofiziala ematen dion zinta-mozketa da urtero errepikatzen den instituzionalizatutako ekitaldi horietako bat. Era-kundeetako ordezkariak harrera egin ondoren, eta Azpeitiko Ikastola Ikasberrin protokolo kontuez arduratu den lan-taldeak aurreikusitakoa zuzen betez gero, goizeko 10:00ak aldera moztuko dute zinta, ikastolan bertan, Kilometroak 2011 festari hasiera emateko. Ikastolako hezkuntza komunitatea ordezkatzuz, hiru protagonista izango ditu zinta moztearen ekitaldiak: Gema Larrañaga, Juan Eizagirre eta Nora Bikendi.

## Ilusioa eta oroitzapenak

Ikastolan urte gehien daramatzan irakaslea, gurasorik beteranoena eta egungo ikaslerik gazteena —haur eskolakoak alde batera utzita— elkartzea zen antolatzaileen asmoa, Kilometroak festari ikastola osoaren izenean hasiera emateko.

Eta asmoa bete dute... ia-ia. Gema Larrañaga (Azkoitia, 1954) da ikastolan urte gehien daramatzan irakaslea —1970an hasi zen lanean, Azkoitikoan—, eta Nora Bikendi (Azpeitia, 2008) da Haur Hezkuntzako ikaslerik gazteena. Juan Eizagirre (Azpeitia, 1950) ere ez dabil gu-



Gema Larrañaga, Nora Bikendi eta Juan Eizagirre.

raso beteranoena izatetik urruti, baina ez omen da zaharrena: “Badakit beste bati eskaini ziotela aurretik zinta-mozketan parte hartzea; baina hark ez zuen nahi, nonbait, eta niri esan didate gero. Hau ere egin, egingo dugu, ba”. 61 urte ditu Eizagirrek eta bi

seme-alabak, 17 eta 13 urtekoak, ikastolako ikasle ditu. “Nik emaztea hartu nuen gaztea”, dio, irribarez. Gema Larrañagak ere umorez azaltzen du zera: “40 daramatzat irakasle, baina esatea nahi izaten dut, 16 urterekin hasi nintzela, eh?. Bestela...”.

Bai Larrañagak eta bai Eizagirrek hirugarren Kilometroak festa dute 2011koa. 1979koaren oroitzapen gozoak gordetzen ditu Gema Larrañagak. “Dena zen berria —dio—. Dirurik ez zegoen, ezer ez... baina egundoko batasuna zegoen. Irakasle eta guraso bat ginen, denak ginen ikastola. Orain ere gurasoek lan asko egiten dute, baina orduko giroa berezia zen”. Gauzak antolatzerakoan zituzten baliabideak alderatu ditu Eizagirrek: “Aurreneko hartan, zer lan egin genituen, zer ibilera... Inork minik hartu ez zuenean, gaitzerdi!”.

1979ko ilusioak jarraipena izan zuten 2000. urtean, baina orain dela hamaika urtekoaz beste era bateko oroitzapenak dituzte. “Bigarren Kilometroetarako ilusio galantarekin egin genuen lana. Dena hala prestatu eta, gero zer irten zen...”, esaten du, buruari eraginez, Juan Eizagirrek. Eguraldi traketsak zapuztu egin zituen, neurri handi batean behintzat, ikasberrikoen itxaropenak aurreko Kilometroetan.

## Bost festak batera

Zinta mozketaekin burutuko den goizeko irekiera ekitaldia ez da eguneko bakarra izango. Eguerdi partean, eguneko omenaldien txanda iritsiko da, eta Azpeitiak Andoaini lekukoa pasatzearen ordua ere bai; Andoainen egingo dute 2012ko Kilometroak festa.

2011ko ikastolen jaiak omen-duko dituzte urriaren 2an, Kilometroen baitan. Horrela, aurtan Araba Euskaraz antolatu duen Audio Ikastolakoe, Ibilaldia antolatu duen Ondarroako Zubi Zahar Ikastolakoe, Herri Urrats antolatu duen Seaska Iparraldeko ikastolen elkartekoe eta Nafarroa Oinez antolatuko duen Tallako Garces de los Fallos Ikastolakoe —urriaren 16an egingo dute Nafarroako festa— bat egingo dute Azpeitiko Ikastola Ikasberrikoekin. Omenaldi ekitaldia 12:00etan hasiko da, ikastolako kiroldegan.✱

# Klik Klik Klik euskarari klik komunikazioari Klik Klik Klik klik

The logo for EREKI is composed of several colorful, stylized elements: a person's face, the text 'ongi eto deitzorik', 'ESHU HIZTEG', 'KU-ku', 'euskara iketegia', 'azpeitia', and a cartoon character. The word 'EREKI' is integrated into these elements.  
\_net  
euskara eta komunikazioa

**EREKI**  
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

goiko kalea 5, 3A • tel.: 943 08 06 88  
20730 azpeitia (gipuzkoa) • e-posta: eregi@eregi.net  
[www.eregi.net](http://www.eregi.net)





haritz etxeberria 'ministro'



josu oiartzabal 'xenpelar'

# Gora eusko amona gudariak

# M

**ministro.** Nire amonak 101 urte bete dizkik!

**Xenpelar.** Ikaragarria duk, gainera indartsu ikusten duk eta gehien harritu nauena buruz oso pixkor dagoela izan duk. Hiri begiratu eta ez zagok gauza bera esaterik.

**Ministro.** Baserriko sutondoan egoten duk gustura gure amona. Etortzen den edonoren zat beti dik zerbait eskaintzeko, askorik ez izan arren beti zerbait eskaini.

**Xenpelar.** Bazagok alde ederra, gaur egun "pinganillotik" zein da esan eta zalantzan, ez diate aterik irekitzen. Ederki aldatu duk mundua. Lehen zegoena partitzen huan eta orain ahal bada kendu. Lehengo auzolana gaurko auzo inbidia bilakatu duk. Gerra ondorengorak gaizki ohituta gaudek.

**Ministro.** Nik aitonaekin hitz egiten nian (gutxitan) gerrari buruz, erdi isilpean baina hitz egiten genian. Beti esaten zian: "guk nola irabaziko genian ba! Italiarrekin (Frankoren aliatuak) zituzten botekin!" Ez zian fusila inoiz aipatzen, botak baizik.

**Xenpelar.** Eta amonarekin ez? Ez al dik nahi izaten gerra aipatzerik? Frankok isilpera kondenatu eta betirako isildu?

**Ministro.** Ez. Kontua duk gure amonak gerra aipatzean diola: "guk ezer gutxi egin genuen. Zer egingo gendun ba? Isilpean egon eta ahal zen heinean lagundu". Ezer gutxi? Seme alabei jaten eman, baserria aurrrera atera, aitona preso Santoñan zenez bisitatu, ezkutuan zebiltzanein lagundu. Hori ezer gutxi bada nork egin zuen ba gehiago? Tiroka ibili zirenek? Gizonek historia egin zuten eta emakumeek istorioak soilik?

**Xenpelar.** Egia duk, aitona gudan ibili hituan, asko sufrituz, baina gutxienez beraien

**XENPELAR.** "Gure aitona gudariak hituan, baina baita gure amonak ere"

**MINISTRO.** "Ni oroitzen naiz zure babagorriez, amona. Urte askotarako"

medaila edo kondekorazioa ditek; amonek aldiz ezer ere ez. Ez duk justua.

**Ministro.** Gure aitona egindako altzaria oraindik ere sukaldean zagok, denak oroitzen dituk baina amonak egindako baba-gorriekin nor oroitzen duk? Amona sutondoan dagoela esaten dugunean, ez al gara oroitzen jairik eman ez dion tramankuluaren ondoan dagoela?

**Xenpelar.** Gure aitona gudariak hituan baina baita gure amonak ere. Gora emakumeen borroka, gora atzoko eta gaurko gudariak! Gora eusko amona gudariak!!!

**Ministro.** Amona ni oroitzen naiz zure baba-gorriekin, zorionak eta urte askotarako!!\*



# Garagardoarekin topa

Urriak 7, 8, 11, 14 eta 15ean izango da III. Garagardo Azoka. Hamar garagardo desberdin dastatu ahalko dira, eta azoka plazako giroa alaitzeko egunero musika emanaldiren bat izango da.  A. Agirrezabala

**G**arai honetan izaten da Murnichen (Alemania), Bavariako hiriburuan, mundu osoan ezaguna den Oktoberfest garagardo festa handia. Alemaniako jaialdi erraldoiaren urrutiko oihartzun bezala, era xumean egingo da III. Garagardo Azoka, urriaren 7, 8, 11, 14 eta 15ean. Urriaren 12an, berriz, Mus Txapelketa izango da. Bertan Merkatarik Elkartea eta Iraurgi Saskibaloi Taldeak antolatutako festa Udaren laguntzarekin.

Iaz eta duela bi urte azokak izan zuen arrakasta handia ikusita, hiru gararrenez antolatuko dute Garagardo Azoka.

Alemania, Irlanda, Herbehereak, Belgika eta Australiako hamar zerbeza mota dastatu ahal izango dira. Edanari laguntzeko jatekoa ere izango da, garagardo azoke-

## III DATUAK

III **Zer.** III. Garagardo Azoka.

III **Eguna.** Urriak 7, 8, 11, 14 eta 15. Urriak 12an Mus Txapelketa. III **Tokia.** Azoka plaza. III **Antolatzailea.** Bertan Merkatarik Elkartea eta Iraurgi Saskibaloi Taldea, Udaren laguntzarekin.

tan ohiko izaten diren bi saltxitxa mota eta txerri-ukondoa.

Iaz bezala agertoki bat ere prestatuko dute azoka plazako giroa alaitzeko, eta egunero musika emanaldiren bat izango da. Ia 600 lagunentzako eserlekuak egongo dira eta 25 pertsonako txandak eginez, 100 lagun inguru ariko dira lanean. Azokaren ordutegia 20:30etatik goizeko 02:00ak artekoa izango da.\*

## III GARAGARDO AZOKA

**5** egunetan irekita. Garagardo azokak urriak 7, 8, 11, 14 eta 15ean irekiko ditu ateak. Urriaren 12an Mus Txapelketa jokatu da.

**10** garagardo desberdin. Alemania, Irlanda, Herbehereak, Belgika eta Australiako hamar zerbeza mota dastatu ahal izango dira.\*



Iazko Garagardo Azoka, Azoka plazan.  Nerea Uranga

## III BESTERIK

### 1 Organo Erromantikoa

Hileko lehen lau igandetan Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan arituko dira Aretxabaleta abesbatza eta Jose Luis Frantzesena organista; Haizea Muñoz sopranoa eta Ana belen Garcia organista; Mario Ciferri organista italiarra; eta Donostiako Orfeo Txikia, Esteban Urzelaik zuzenduta. III **Eguna.** Urriak 2, 9, 16 eta 23 (igandea). III **Ordua.** 20:00 (igandea). III **Tokia.** Loiolako Basilika.

### 2 Zezen Beltzen III. asteburua

Hilaren 8an zezen jolasak izango dira, zezen plazan (17:00). Urriaren 9an (10:00 - 14:00), txahal saiheskia erreko da plazan eta zezen txikiak eta poniak izango dira. 17:30ean, zezen jolasak, zezen plazan. Hilaren 12an, berriz, zezen txikiak eta poniak izango dira plazan (11:00); eta zezen enbolatua (17:00) Artzubian. III **Eguna.** Urriak 8, 9 eta 12. III **Antolatzailea.** Zezen beltz.

### 3 Aizkora apustua

Joseba Otaegik eta Xabier zalduak, bakoitzak, hamar kanardiko eta 60 ontzako lau moztu beharko ditu, eta korrikari zortzi kilometro egin. Alde bakoitzak 5.000 euro jokatu ditu. III **Eguna.** Urriak 30 (igandea). III **Ordua.** 12:00 III **Tokia.** Zezen plaza.\*

III **Azpeitiko** ekimenenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



## Atsedenerako aukerak

Somier artikulatuak  
Antieskara koltxoak  
Barandilak  
Besaulkiak

## Bainugela egokituak

Bainugelen egokitzapen integrala



## Irisgarritasuna

Jasotzaile bertikalak  
Eskailerak igarotzeko aparailuak  
Plataforma jasotzaileak  
Beldar ibilgailuak

## Mugikortasuna

Gurpildun aulkiak  
Garabiak  
Eskorgak  
Scooterrak



Fabrikatik zuzenean  
**Likoren** garantiarekin



Fabrikatik zuzenean  
**Hill Roomen** garantiarekin



Fabrikatik zuzenean  
**Ingesearen** garantiarekin

**gerodan**   
Adinduentzat egokitutako altzariak



Garmendipe 10, 20730 Azpeitia  
Gipuzkoa

Tel.: (0034) 943 157 979

Fax: (0034) 943 151 086

[www.gerodan.es](http://www.gerodan.es)

[etrevino@gerodan.es](mailto:etrevino@gerodan.es)

Ondo eta eroso bizitzeko, baliatu gure aukerak







## ||| SOLUZIOAK |||||

## HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ● | K | A | I | R | A | K | S | U | K | I | ● |
| E | A | E | ● | A | L | O | T | S | A | K | I |
| R | ● | N | O | D | A | R | ● | A | E | R | ● |
| O | K | U | ● | A | R | A | R | A | E | L | B |
| D | A | ● | A | R | O | R | K | A | R | S | ● |
| I | R | O | ● | E | K | ● | O | K | U | X |   |
| A | R | E | T | U | T | ● | O | S | ● | A | ● |
| R | A | K | L | ● | T | M | ● |   |   |   |   |
| T | N | L | A | T | U | A | T | R | A | T |   |
| ● | I | ● | P | ● | T | ● | I | ● |   |   |   |

## HITZ GURUTZATUAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | D | L | A | O | S | A | R | E |   |
| D | ● | I | R | A | R | A | K | O | L |
| L | A | B | R | E | H | ● | K | I |   |
| A | R | L | E | G | ● | A | R | I | A |
| N | I | N | Z | ● | A | N | Z | O | Z |
| U | A | G | ● | A | P | I | R | T |   |
| F | A | ● | U | T | A | K | L | E |   |
| R | A | L | I | A | T | I | ● | A |   |
| I | D | L | A | N | E | B | A | S |   |

## ||| ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urriak 21 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta opari ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ADIERAZI ZER DAGOEN SOBERAN, ZER DAGOEN FALTAN.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

## ||| UZTARRIAREN ABUZTUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?

FERNANDO MORILLO, IDAZLEA

IRABAZLEA



Alexander Silva Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 131. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Alexander Silva, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutixiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od  
rioz  
ola

## Lanpernak

**I**nolako zalantzarik gabe animalia arraroa da lanperna. Txerri hanka txiki batzuen antza du, eta olatuek indartsu astintzen dituzten itsasoko haitzetan bizi da koloniak osatuz. Espeziearen iraupenerako senak bultzatzen du kolonietan bizitzera; elkarrengandik banandurik biziko balira espeziea galdu egingo litzateke.

Arrain honen jangarria hanka da, eta buruak, obarioek eta erdiko giarreak osatzen dute. Sinestezina badirudi ere, haitzari itsasten den zatian dago burua, eta buruz behera bizitzea nahi duen naturako animalia bakarra da. Gutzi gastronomikoa da, lortzen zaila eta gutxi direlako. Egoera onean dagoen edo ez jakiteko kontuan izan lanperna freskoak ez duela zimurrik izan behar.

Elikadura ikuspegitik %80 ura da, erraz transformatzen den 515 proteina du, bitamina oso gutxi, eta hala ere, mineral gatz ugari, kaltzioa, burdina eta potasioa adibidez. Jangarria den 100 gramoko zatiak 60 kaloria bakarrik ematen ditu, arrautza egosi batek baino gutxiago. Baina gauza bat da elikatze-ko behar fisiologikoa izatea, bizitzeko alegia, eta beste bat zeharo desberdina jaki gozoak dastatzea diru arazorik gabe. Bere doai afrodisiakoaz aipatzen den mundu mitologikoa ipuin bat besterik ez da.✱

|||||||julian bereziartua|||||



## JULEN BELATEGI igogailu konpontzailea



- 1. Igogailuko zulotik gehien erortzen dena...**  
Giltzak, izugarri. Inoiz kartera eta mobilen bat ere bai.
- 3. Zuloan aurkitu duzun gauzik xeblearena?**  
Kondoia.
- 4. Bitxikeriarik?**  
Igogailuan harrapatuta

- 22:00etan geratu zen bat eta goizean 7etan atera nuen.
- 5. Herrian aberia gehiena ematen duena?**  
Karakolekoa. Salbaje batzuk dena puskatzen dute.
  - 6. Igogailuak ondo zaintzen al ditugu?**  
Etxepearen arabera.

- 7. Igogailuak ba al du morborik?**  
Ez zait iruditzen; etengabe mugimenduan egoten baita.
- 8. Ohiko larrialdia?**  
Igogailuan harrapatuta geratzea.✱  
✱ Ainitze Agirrezabala

 **lentzeria  
mertzeria**  
jose artetxe, 16  
nabar

 **ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK  
Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

 **domusa**

 **AIZPURU AUTOAK**  
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"  
**URBISTONDO  
MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

*lora-etxea...*  
  
**Kimubat**   
**ASTE BUKAERAN IREKIA**  
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



# Gpuntua sarean

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan jarraitzen duten herriko bertsolarien jarraipena egingo du Haritz Etxeberria 'Ministro'-k, 'Lapikue.net' webgunean.

**M**inistrok' Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan jarraitzen duten azpeitiarren inguruko iruzkinak idatziko ditu *lapikue.net*-en, haiek kantatzen duten aldiro.

Lehenbizikoa irailaren 25ean egin zuen, Beñat Lizasok Lazkao-ko saioan hartu zuelako parte. Jokin Uranga eta Urko Egaña dira txapelketan jarraitzen duten beste bertsolariak. Urangak urriaren 1ean kantatuko du, Elgoibarren; Egaña, berriz, urriaren 8an, Irunen. Eneritz Arza-llus ere sailkatu zen final-zortzirenetarako, baina ezin izango du parte hartu.

Ernarraritz Bertsozale Elkarteko zazpi lagun hasi ziren Gpuntua sarean. ✕

||| Lizaso, Uranga eta Egañaren inguruko iruzkinak idatziko ditu

## ||| INKESTA |||

**Oporren ostean eguneroko jardunera itzultzea gogorra egin?**

**Bai.** %58,57.

**Ez.** %41,43.

**||| Oraingo galdera.**  
Garagardo Azokara joango al zara?



Haritz Etxeberria 'Ministro'. ||| Hitza

## ||| EFEMERIDEAK |||

# 1629

**Ganadua herrian saldu beharra.** Behi eta ahari gutxi zen herriko lurretan haragi hornikuntza egiteko ganaduak heritik kanpo saltzea debekatu zuten.

# 1685

**Izoztegia egiteko lanak.** Herriak lor zezakeen lehen diruarekin Izarraizko izoztegiaren hormak egitea erabaki zuten, Esteban Alzaga erregidorearen esanetara.

# 1673

**Sagardo txepela.** Sagardoa urarekin nahastuta egitea erabaki zuten, sagar gutxi izan zelako urte hartan.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. *Herria* historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✕

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



**A**skotan ahaztu egiten zaigu futbolariak pertsonaia publikoak ez ezik, herritar arruntak direla; gu bezala semeak, lagunak, bikotekideak, bizilagunak edo lehengusuak izan daitezkeela.

Hori aitzakiatzat hartuta, David Zurutuza (Rochefort, Frantzia, 1986) Errealeko futbol jokalaria elkarriketatuta du Uztarriak; zelai barruan ezagutzen dugun arren, berari buruz zerbait gehiago jakiteko asmoz.

Zurutuza betidanik hara eta hona ibili izan den mutila da. Berak ondo dioen bezala, ez luke jakingo bere etxea zein izan den esaten, gauza bakarra du argi: “euskalduna” dela. “Txikitatik ikasi dut frantsesez zein euskaraz hitz egiten: amarekin frantsesez, aitarekin euskaraz”. Hala ere, euskara da bere ama hizkuntza.

Denbora librean, lagunekin, neskarekin, familiarekin edo txakurrarekin egotea du gustuko. “Futbolak denbora libre asko lagatzen digun arren, ezin dugu beti nahi duguna egin, eta askotan atsedena hartzea tokatzen zaigu”. Atsedean hartzeko, akziozko pelikulak ikustea edo Esne Beltza taldearen abestiak entzutea dira futbolariaren aukeretako batzuk.

### Eta futbolaz gain?

Futbolean ez ezik, makina bat kiroletan aritua da elkarriketatua; hori bai, inoiz baloiaz ahaztu gabe. Eskola kiroletan zein atletismoan ibiltzen zen, eta gaur egun, asko jolasten ez duen arren, “ping-pong-a praktikatzea gustuko” du.



David Zurutuza baloia hanketan duela, Garmendipe futbol zelaian. |||Reala

# Baloiaz gain

Baloiaz gain, bada beste mundu borobil bat Zurutuza jokalaria profesionalarentzat: bere munduan zein buruan, gure herriak badu tartetxo bat 📝📺 Eneritz Albizu





Futbol zelaian, jarraitzaileek 17 zenbakia- rekin ezagutzen duten mutil honek, ez luke zenbaki hori gustukoenetzat hartuko: “Beti gustatu izan zait 5 zenbakia, badakizu, txikita- ko kontuak”.

Realak leku ezberdin ugari ezagutzea ahal- bidetu dion arren, futbolariak argi dauka “konpainia onean leku txarrik ez” dagoela. Mendia eta hondartza biak atsegin ditu, azken aldian hondartzara gehiago jotzen duen arren.

Ikasketei dagokionez, ingeniari-tza ikasten jardundakoa da Zurutuza, “Matematika eta fi- sika ziren nire ikasgai gustukoenak”.

Gosaltzeko ez du buruhauste handirik i- zen, zerealak dira eguneroko gosaria; hala ere, txikia zenetik ezergatik aldatuko ez luke- en jakia patata tortilla da.

### Azpeitiari begira

Aita azpeitiarra izanik, familia bisitatza- ra txikia zenetik etorri izan da herrira futbolari- a, “Zuen herrian, Hendaian ez bezala, kaleko bi- zitzat dago eta asko gustatzen zitzaidan hara joan eta lehengusu zein lagunekin jolasten ibiltzea”. Umetan ez ezik, oraindik ere etor- tzen dela eta herria gustuko duela adierazi du.

“Oraindik ondo gogoan ditut nire ‘attittek’ [Enrike Zurutuza, albaitaria eta euskaltzalea] Azpeitiko baserritarrei buruz behin eta berriz kontatzen zizkidan istorioak, pasadizoak eta anekdotak”.

Ziur aski, bere azken hitzekin erakutsi du berak ere baduela azpeitiar nortasuna. Az- peitiko leku bat hautatzeko eskatutakoan, Erdi kalea erantzun du; eta Azpeitia entzun eta burura etortzen zaion lehen gauzaz gal- detzean, “herri indartsutzat” deskribatzen du herria.✱



iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52



Osasun Arreta Ziurtagiria  
duen Euskal Herriko  
lehenengo hortz klinika

‘zure irribarra zaintzen dugu’

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen      | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB     | 15 71 61 |
| INEM                 | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 0837 80  |
| Aitonena I           | 81 51 71 |
| Aitonena II          | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 0251 91  |
| Ingurumen Etxea      | 81 24 48 |

### OSASUNA

|                        |          |
|------------------------|----------|
| Anbulatorioa           | 0254 00  |
| Anbulator. larrialdiak | 0254 01  |
| Eguneko zentroa        | 15 74 96 |
| Asepeyo                | 8144 00  |
| Gurutze Gorria         | 85 32 97 |
| DYA-Donostia           | 46 46 22 |

### KOMUNIKABIDEAK

|                               |              |
|-------------------------------|--------------|
| Uztarria                      | 15 03 58     |
| Hitza (Azpeitia)              | 81 38 41     |
| Hitza (Zarautz)               | 8900 17      |
| Azpeitian Zer?                | 81 11 00     |
| Berria                        | 943 30 40 30 |
| Gara                          | 943 31 69 99 |
| Noticias (berriemailea)       | 687 60 50 06 |
| DV (berriemailea)             | 610 81 29 12 |
| Argia                         | 943 37 15 45 |
| Nabarra                       | 948 22 71 25 |
| Arrate Irratia (berriemailea) | 81 26 32     |
| Loiola Herri Irratia          | 81 44 58     |
| Euskadi Irratia               | 943 01 23 00 |
| Erlo Telebista (Azpeitia)     | 81 53 35     |
| Izarraitz Telebista           | 85 13 05     |
| ETB                           | 943 01 17 05 |

### ALDERDI POLITIKOAK

|     |          |
|-----|----------|
| EAJ | 81 55 70 |
|-----|----------|

## FARMAZIAK (URRIA)

### EGUNEZ

|                        |                    |                      |
|------------------------|--------------------|----------------------|
| 1-2-3-6-11-14-18-27-31 | 4-12-21-25         | 5-17-22-23           |
| Beristain (Azpeitia).  | Jacome (Azpeitia). | Aranburu (Azpeitia). |
| 943 811 949            | 943 080 258        | 943 811 350          |

### GAUEZ

|                                                  |                      |
|--------------------------------------------------|----------------------|
| 1-2-10-11-12-13-14-15-16-24-25-26-27-28-29-30-31 | 3-8-9-21             |
| Alberdi (Azpeitia).                              | Gisasola (Azkoitia). |
| 943 815 974                                      | 943 851 235          |

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Urriaren 26an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

|                           |          |
|---------------------------|----------|
| Hautetsi Independentistak | 15 72 00 |
| EA                        | 81 00 11 |
| EB-Aralar                 | 15 72 00 |

### SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

### KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Euskara Patronatoa   | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| AEK                  | 15 10 89     |
| EHE                  | 15 10 89     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 8165 08      |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

### IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 8163 80  |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

### BESTERIK

|                                      |           |
|--------------------------------------|-----------|
| UGLE (Urolako gay-lesbian.)          | 273 posta |
| Xoxoteko aterpea                     | 58 10 07  |
| Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak |           |

|  |              |
|--|--------------|
|  | 943 08 06 88 |
|--|--------------|

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPOTXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## BAZKIDETU ZAITEZ!

Bazkidetu zaitez Kultur Mahaian, Sanagustinen proiektua-eta laguntzeko. Gainera, abantailak dauzka, zozketen bidez. Urtean 10 euro dira. Sanagustinen txartelak eta bazkide kaxak daude.

## GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:  
www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak

|                  |                  |
|------------------|------------------|
| 4-5-17-22-23     | 6-18-19          |
| Ruiz (Azkoitia). | Jaen (Azkoitia). |
| 943 851 966      | 943 850 660      |

|                     |
|---------------------|
| 7-20                |
| Azpiazu (Azkoitia). |
| 943 852 989         |



# LOREDANA CRETU

Errumania, Brasov

“Euskara ikasi ez duen jendeak nahi ez dueLako dun”

Urtebete da euskara ikasten hasi zela eta egundoko erraztasunez mintzo da 29 urteko errumaniarra.  **Ainitze Agirrezabala**

**N**olatan bizi haiz Azpeitian?

2009an etorri nindunan, Interneten mutil azpeitiar bat ezagututa. Errumaniatik, ordea, duela zazpi urte irten ninan, hiru hilabeteko semea nire amarekin Errumaniar lagata.

**Erraz egin al haiz Azpeitira?**

Bai. Herri polita dun, baina oso isolatuta zagon. Garraio-zerbitzu kaskarra zagon eta merkataritza-gune bat faltan botatzen dinat.

**Zer moduz azpeitiarrekin?**

Ez dinat harreman handirik inorekin. Deskonfiantza diten. Egia esan koadrila bat izatea faltan botatzen dinat.

**Euskaraz txukun hitz egiten dun...**

Oso erraz ikasi dinat, baina gehiago ikasteko gogoz nagon. Zerbitzari lanean aritu naun bizitza osoan, baina, orain, senarrari esker ikasteko aukera dinat, eta enpresa-ikasketak ari naun egiten, Donostian. Aita batek ere ez likin egingo senarra nigatik egiten ari dena. Ikaragarritzko babesa ematen zidan Jose Luis-ek. Oso pozik gauden elkarrekin. Kontua dun, unibertsitatean eskolak arratsaldeztiki diti-nadala eta euskaltegian osatu ezinda gabil-tzan goizeko taldea. laz hasi nindunan euska-

ra ikasten, baina oso erritmo makalean aritu gaitun eta neure onetik ateratzen nindunan. Bi aste pasatzen genitinan hilabeteen izenak ikasten... Nik erritmo biziagoa behar dinat. Lo hartzen ninan, sufritu egiten ninan. Egia esan nik hizkuntzak ikasteko erraztasuna dinat, baina euskara ikasi ez duen jendeak nahi ez duelako dun.

**Errumaniatik zer botatzen dun fal-tan?**

Lagunak. Gainontzean, pobrezia handia zagon eta itsusia dun. Errepideak puskatuta zauden, dena oso garesti zagon eta hileko soldata, batez beste, 150 eurokoa dun. Erru-maniar baserri oso polita dinagu eta nire amak hara itzuli nahi din.

**Zer dun gogokoena Azpeititik?**

Xoxote. Sarritan joaten naun, nahiz eta ondo-ren bi aste agujetekin egon.

**Eta, zer gustatzen zain gutxiena?**

Lapatx zabortegiko eta pentsu lantegiaren usaina. Agirre auzunean bizi naun eta hango lantegiko zaratak burmuina astintzen zidan.

**Errumaniara itzultzeko asmorik bai?**

Ezta pentsatu ere! Bisitan joango naun.\*



1

1. Loredana Cretu. 2. Cretu bere senarra, ama eta zazpi urteko semearekin. 3. Cretu senarra eta haren bi lagunekin.



2



3

# Postala Habanatik II

# H

Hemen nauzu berriz, Habanara heldurik, azkenean. Hemengo itzulia egin gabe urtea joan zait bitartean, adiskide zaharrak ikusi gabe, artxiboetako agiri are zaharragoak berraztertzeak aukera gabe. Eta, Habanara heldu eta giroa nahasi... Baltseroak beti izan dira gauza delikatuak Kuban, baina oraingo baltsa saltsa honek bete-betean harrapatu gaitu gu, euskaldunok. Horra ere ailegatuko zen notizia, ezta? Gainera, baltseroetako bat ez da, bada, azpeitiarra? Lehorrekoa behar, bigarren aldia ere bai, itsasontziak hondoa jo diona! Hirugarrenik izango ote da?

Zure kamarada idazleari ez dio onik egin baltsa kontu berriak. Ez idazleari, ez beste inori. Maletak prestatzen ere ari omen zen, beste hiruzpalaurekin batera, horrako. Hogeitaka urte eta gero, Euskal Herrira libre itzultzeko modua zuten. Horixe zebilkien buruan. Burumakur ikusi dut zure idazlea, al-dendu berri da emaztearen ondotik, eta honek trabak jartzen dizkio semea ikusteko, asteburuan bada ere. Leku guztietan zakurrrak hanka-hutsik. Emaztea suak garra furiak hartuta dabil... Idazlea ez da ezer idazteko gauza joan deneko aspaldian, eta, semea ezin ikustek min ematen baldin badio ere, gizajoak zigor latza du ezer ez idaztea, idazteko aldarerik ez izatea.

Hemengo egoera, berriz, beti betikoa duzu. Honek ez du aurrera ez atzera egiten. Hortxe denok, yuca [patata antzekoa] zati bana jaten...

Herenegun, eguzki galda izugarrian, emakumezko bat gure auzoan, niri galdezka:  
—Tu sabe donde hay frijole negro?

Zuen babarrun gorria falta, esaterako! Indabak, gurean. Batek daki nondik heldua zen zorioneko emakumezkoa, zorioneko baba bila.

Etxean, gure andreak aurkitu du babarrun delako hori, baina dolarretan erosi behar izan zuen. Ez aurrera ez atzera doala herrialdea



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Hemen dena dago galduta, eta, lehenengo-lehenengo, herrialdea bera dago -alferrik- galduta...

esan dut, baina Pello Mari Otañorekin batera esan beharko nuke nik ere: "Aurreratutzen goaz, txangurruben gisan"...

Beste erokeria bat orain. Gure lagun Kikitok txinatar kamioi berria du. Orain dela bi urtetik hona dabil kamioitzarrean. Lehengo batean, ni itzuli berritan, matxuratu zaio kamioia. Transmisio berria behar duela esan diote. Hasi dira transmisio bila... eta orain dela hogeita hamar urteko errusiar kamioiari kendu behar izan diote. Txinatik kamioi berriak ekarri bai, ekarri dituzte, baina ordeko piezarik ez! Eta, horra, bi urteko kamioi dotorea, duela hogeita hamar urteko transmisioarekin. Horrek erakusten du, ondoen, nola dagoen herrialde hau.

Horretan eman ditut itzuli ondoko lehen egunak... Polakitorako [poloniar auto zaharra] pieza bila abiatu eta:

—La válvula etá pérdío!

Berina behar eta:

—El crítal etá pérdío!

Burdina bihurritu behar eta:

—La planta de soldal se pérdío, chico!

Hemen dena dago galduta, eta, lehenengo-lehenengo, herrialdea bera dago -alferrik- galduta...

Bihotzez.✱







Giltzen kopiak  
Etxeko tresnak  
Sukaldeko tresnak  
Lan-tresnak  
Sarrailagintza  
Elektrizitatea  
Brikolajea



Enparan kalea 26 • 20730 Azpeitia  
Tel/Fax 943 083 205  
[www.ferreteriairu.net](http://www.ferreteriairu.net)

**DENDA  
BERRIA  
ZABALIK!**



**eurotex**  
P I N T U R A K



**Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA**  
tel. 943 8125 66 - mug. 60775 88 01 - [www.landetabrikodenda.com](http://www.landetabrikodenda.com)  
[www.eurotex.es](http://www.eurotex.es)





innovadental

Bisita gaitzazu:  
**José de Artetxe kalea, 5**  
(anbulatorioaren ondoan)  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:  
**943 02 59 55**

implanteak



Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora  
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu  
gure finantzaketa!*

hortz-klinika  
**AZPEITIA**<sub>n</sub>

LA SALBE 39 BEHEA 20730 AZPEITIA TEL. 943 15 01 01



499  
EURO

**Ukabi**  
informatika